




ANDOAINGO UDALA



## **Memoriaren inguruko txostenaren enkarguaren aurkezpena egin dute gaur Udaleko alderdi guztiek**

Duela bi urte Andoaingo Udaleko alderdi politikoek bakea eta bizikidetzaren inguruko elkarrizketa eraikitzaile bat bultzatzeko prozesu diskretu bati ekin genion. Mahai horrek egindako lanaren fruitu izan dira Memoriaren eguna ospatzeko adostutako testuak eta gai honen inguruko lehen zinema zikloa. Zentzu honetan, prozesu honi esker, gure arteko desadostasunak lantzen ari gara aniztasunarekiko errespetua ardatz hartuta.

Prozesu honen baitan alderdi politiko guztiek erabaki dugu Argitzuz Giza Eskubideen Aldeko Elkartearekin batera Andoainen gertatutakoaren inguruko txosten bat egitea, hilketak, giza-eskubideen bortxaketak eta gure iragan gertuan gertatutako beste indarkeria ekintzen memoria jasotzeko. Elkarrekin dagoeneko eginak ditu horrelako txostenak Gipuzkoan eta bizikidetzan mahaiak bizikidetzaren bultzatzeko eta herri mailako memoria politikak lantzeko tresna egokia izan daitekeela deritzo. Alderdi politiko guztiek enkarguaren irizpideak adostu ostean, Argitzuz Elkarrekin arduratuko da bere kabuz eta modu independentean txostena osatzeaz.

Jabetzen gara txostena gaiak lantzen jarraitzeko abiapuntua izango dela, eta datu berriak eman nahi dituzten pertsonen ekarpenekin aberasteko aukera egongo dela. Hala ere, 2018an zehar Andoainen aurkeztea espero dugun txosten hau egitea aukera bezala baloratzen dugu alderdi guztiok.

*Andoainen, 2017ko uztailaren 11an*

